

**AJNAB**

**LE**

**MOISSONNEUR**

**DE**

**S**  **NS**





## 1 SINOPSISIA / SYNOPSIS

**Ajnabek** bere herrialdea utzi behar izan du. Eremu alfer utzi batean bizi da, baztertu baten gisan. Hondarkintegietan bildu gauzen salmentari esker bizirik irauten du. Haren zorion memento bakarra musika-kutxatxo entzutea da, haur denborako oroitzapen goxoak gogorarazten baitizkio.

**Ekherri** deitu emazte batek bizia azpiz gora ezarriko dio Ajnabi, eskorgan bildu dituen objektu bakoitzak musika egin dezakeela erakutsiz. Elkarrekin soinu-makina handi bat eraikiko dute. Nola ihardetsiko ote du makina horrek haien musika gogoari?

*Ajnab a du quitter son pays. Il vit sur un terrain vague ; c'est un exclu, un marginal.*

*Il survit grâce à la vente de ce qu'il récolte dans les déchetteries. Son seul moment de bonheur : écouter sa boîte à musique qui lui rappelle des souvenirs heureux de son enfance.*

*Une femme, Ekherri, bouleversera sa vie en lui montrant que chaque objet amassé dans sa brouette peut émettre de la musique. Ensemble, ils construiront une grande machine sonore.*

*Comment réagira celle-ci à leur désir de musique ?*



## 2 – GURE XEDEA / NOTE D'INTENTION

Valérie Marsanek musika-tresnak egin zituen ekai birziklatuekin, eta lan horren bidez “Ajnab soinu-biltzailea” ikusgarria bultzatu zuen. Prozesu hori ikasle gazteekin entseatu ondoan, istorio baten kontatzeko erabiltzea erabaki zuen.

Eta, ikusgarria naturalki konpainiaren lantegian sortu zen, **Hazparren**.

Lehenik soinu-gorputz franko sortu zituen kontserba-ontziekin, berinazko eta plastikozko botilekin, banbuekin, aire-ganberekin, etab.

Soinua plantan ezarri ondoan, ipuin bat idatzi genuen konpainiak maite dituen gaien inguruan, baina publiko gaztearentzat egokiturik: erbestea eta bazterkeria **Ajnab** pertsonaiaren bidez, lurralde “suntsituak” eremu baztertuen bidez. Musika ipuinaren osagai abiarazle edo nahasle da.

Ondotik, platora pasa ginen. Konpainiako kideen trebetasunei dei egin genien platoaren sorkuntza-prozesuarendako: jokalaria, musikariak, eszenografoak eta teknikariak bat egin zuten ipuin horren apailatzeko. **La Fabrique Affamée** konpainiak garrantzia bera ematen dio jestu bakoitzari (jokoa, hitza, eszenografia, etab.).

Kantu baten bidez, euskara ere gure sorkuntzan sartu gogo genuen. Beraz, ipuina frantsesez nola euskaraz proposatzen dugu.

Azkenik, “**Ajnab soinu biltzailea**” ikusgarria karpa pean ematea pentsatu genuen, jende gehienengana joateko gisan lurralde ahal bezain zabalean.

« *Ajnab, le moissonneur de son* » est impulsé par le travail de **Valérie Marsan** sur la fabrication d'instruments de musique à partir de matériaux recyclés. Après avoir expérimenté ce processus auprès de jeunes élèves, elle décide de l'utiliser pour raconter une histoire.

Le spectacle naît donc naturellement dans l'atelier de la compagnie à **Hazparren**.


La première étape consiste à fabriquer un grand nombre de corps sonores à partir de boîtes de conserves, de bouteilles en verre et en plastique, de bambous, de chambres à air, etc...

Une fois le décor sonore planté, nous écrivons un conte reprenant les thèmes chers à la compagnie tout en les adaptant à un jeune public ; l'exil et la marginalité, avec le personnage d'**Ajnab**, les territoires « dévastés » avec le terrain vague et la musique comme élément déclencheur ou perturbateur du récit.

Nous passons ensuite au plateau. Chaque savoir-faire de la compagnie est mis à contribution dans le processus de création au plateau : comédien, musicienne, scénographe, technicien unissent leur force pour orchestrer ce conte. **La Fabrique Affamée** donne ainsi la même importance à chaque geste (jeu, parole, scénographie, etc...).

Nous souhaitons aussi intégrer l'euskara à notre création par le biais d'une chanson. C'est pourquoi nous proposons le conte dans sa version française et sa version basque.

Nous imaginons enfin la diffusion de « *Ajnab, le moissonneur de son* » sous chapiteau afin d'aller à la rencontre du plus grand nombre sur le territoire le plus large possible.



### **3 – KONPAINIA / LA COMPAGNIE**

**La Fabrique Affamée** konpainiak ipuinak kontatzen ditu.

Aztoratzen duten ipuin horietarik, itzulipurdikatzen dutenak, traba egiten dutenak, bizirik sentiarazten dutenak.

Mundua kontatzen duten ipuin horietarik, gure begiradari buruz eta munduarekin eta jendeekin dugun harremanari buruz galdekatzen duten horietarik.

Jendeez ari baikara, sentsibilitatez, haragiz, amodioz.

**La Fabrique Affamée** konpainiak bakoitzaren sentsibilitatea hunkitu nahi du, ikusle bakoitzak istorioak beregana ditzan eta etxera haiekin sar dadin. Gure istorioak unibertsalak baitira, jendeez ari baitira, nonahi sorturik ere, edozein hizkuntza mintzaturik ere, nonahi bizi izanik ere, edozein adin ukanik ere. Denak baikara izaki sentikorrak, eta horren ahanzteko joera dugu.

Publiko guziak kontuan hartzeko gisan gure praktika artistikoak kodeak hausten ditu, antzerkiaren muga tradizionalak ere, bai eta musikarenak eta eszenografiarenak. Horretarako, gure antzerki, testu, musika eta eszenografia sorkuntzak beti originalak dira. Gure ikusgarriak denetan ematen ditugu: antzokietan eta kontzertu-geletan, karrikan, mediateketan, liburutegietan, etxeetan.

Eta arte eta kulturarako bidea ireki nahi dugulako, **La Fabrique Affamée** konpainiak bidaiatzen du. Bere karpari esker, konpainiak leku bat eta trebetasun artistiko eta teknikoak proposatzen ditu lurralde guzietan.

Eta karpa hori denendako sorkuntza leku bat ere da. Herritarrek berenganatzen ahalko dute praktika artistiko baten aurkezteko.

Anitz trebetasun baititu konpainiak, publiko guziei zuzentzen zaie hizkuntza eta jendarte-maila bereizketarik gabe, helduei nola haurrei, hauek baitira mundua eraikiko duten biharko helduak. Publiko gazte horrek bere izpiritu kritikoa garatzen ari du eta munduari den bezala so egin behar dio, herritar gisa eta manera sentikorrean.

Horregatik, gure arte-sorkuntza guziak kultura-mediazioari lotzen ditugu: antzerki, musika, kantu, sentsibilizazio lantegiak eskoletan... Eta parte-hartzaileak aktore dira. Urtean zehar ez dugu jadanik idatzia den antzerki bat lantzen, baizik eta talde-idazketa bat bakoitzak aipatu nahi dituen gaien inguruan. Emazte eta gizonak sentsibilitatez eta istorio pertsonalez josiak dira, eta diren horretarik abiatzen gara elkarrekin istorio unibertsal baten sortzeko, urte bukaeran emanen dena.

Bestalde, **La Fabrique Affamée** konpainiak bere testu guziak argitaratzen ditu. Garrantzitsua iduritzen zaigu ikusleak sentsazioekin eta emozioekin atera daitezen, eta, horrez gain, testua ere eraman dezaten etxera, berriz barnean murgiltzeko gisan, eta ikusgarria berriz bizitzeko gisan. Eta gustatzen zaigu pentsatzea gure ikusleen liburutegiko apaletan gaudela.

Azkenik, gure antzerkiak eta literatura-obrak euskarara itzularazten ditugu. Guretzat euskara ezinbestekoa baita, gure eguneroko bizian ondoan baitugu, ezagutzen ditugun jendeen baitan bizi delako, harreman pertsonaletan, bai eta laneko harremanetan. Gurutzatzen ditugun jendeen nortasunaren funtsezko osagaia da euskara. Eta euskara kontuan ez hartzea, jende horien kontuan ez hartzea litzateke, ez eta konpainiaren ADNarekin ere, ainguratzen den lekutik elikatu nahi baititu bere hitzak.

La *Fabrique Affamée* raconte des histoires.

De ces histoires qui bouleversent, percutent, dérangent, rendent vivants et sensibles.

De ces histoires qui racontent le monde, qui nous questionnent sur notre regard, notre relation à lui et aux autres êtres humains.

Car nous parlons d'humains, de sensibilité, de chair et d'amour.

La *Fabrique Affamée* veut toucher la sensibilité de chacun et que chaque spectateur s'approprie ses histoires et rentre avec, chez soi. Car nos histoires sont universelles, parlent de l'humain où que nous soyons nés, quelque soit notre langue, où que nous habitons, quelque soit l'âge. Car nous sommes tous des êtres sensibles et nous avons tendance à l'oublier.

Notre pratique artistique casse les codes, les frontières traditionnelles du théâtre, de la musique et de la scénographie pour qu'aucun public ne soit exclu de nos histoires. Pour cela, nos créations théâtrales, textuelles, musicales, scénographiques sont toujours originales. Nos spectacles se jouent partout : salles de théâtre et de concert, rue, médiathèques, bibliothèques, appartements.

Et comme nous voulons casser les frontières de l'accès à l'art et à la culture, la *Fabrique Affamée* voyage. Grâce à son chapiteau, la compagnie installe un lieu et des savoir-faire artistiques et techniques sur tous les territoires.

Et ce chapiteau constituera également un lieu de création pour tous. Les habitants pourront l'investir, se l'approprier pour y présenter une pratique artistique.

Grâce au large éventail de nos savoir-faire, nous nous adressons à tous les publics, sans distinction de langue, de conditions sociales, aux adultes comme aux enfants, adultes de demain qui construiront le monde. Ce jeune public, futurs esprits critiques en pleine éclosion doit porter un regard citoyen et sensible sur le monde tel qu'il est.

Pour cette raison, nous lions toutes nos créations artistiques à de la médiation culturelle : ateliers théâtre, musique, chant, sensibilisation dans les écoles... Et les participants sont acteurs. Pas de pièces déjà écrites à travailler sur une année, mais bien une écriture collective sur des thèmes que chacun veut aborder. Nous utilisons ce que sont les participants, femmes et hommes dotés de sensibilité, d'histoires personnelles et nous créons ensemble une histoire universelle pour un spectacle de fin d'année.

Par ailleurs, La *Fabrique Affamée* édite l'ensemble de ses textes. Ils nous semblent important que les spectateurs sortent non seulement avec des sensations et des émotions de nos spectacles, mais aussi avec une trace textuelle pour pouvoir replonger et prendre le temps de se raconter à nouveau le spectacle. Et nous aimons nous rêver dans la bibliothèque de chacun de nos spectateurs.

Enfin, nous travaillons à la traduction et à la représentation de nos œuvres théâtrales et littéraires en euskara. Parce que la langue basque s'impose à nous comme une évidence. Elle nous accompagne dans notre vie quotidienne, parce qu'elle vit dans toutes nos rencontres, personnelles comme professionnelles. Cette langue est l'une des composantes essentielles de l'identité des personnes que nous fréquentons. Ignorer la langue basque serait les nier, nier l'ADN même de la compagnie qui veut nourrir ses mots du lieu où elle s'ancre.



## 4 – TALDEA / L'EQUIPE

**La Fabrique Affamée** konpainia trebetasun eta esperientzia profesional eta pertsonal frankoren ganean bermatzen da.

*La Fabrique Affamée s'appuie sur un large éventail de savoir-faire et d'expériences professionnelles et personnelles.*

**Valérie Marsan**ek kontserbatorioan ikasi zuen eta DUMIa badu (musikari parte hartzaileen unibertsitate diploma), konpainiaren baitan publiko gazteari zuzentzen da.

*Valérie Marsan, formée au Conservatoire et titulaire du DUMI (diplôme universitaire des musiciens intervenants) axe le travail de la compagnie sur le jeune public.*

**Nicolas Marsan**ek kontserbatorioan egin antzerki formakuntzaren bidez eta kazetari-erreportari gisa ukan esperientziaren bidez egin dituen topaketak kontatzen ditu bai eta gatazka-guneetan bizi esperientziak, hitzen eta jokoaren bidez.

*Nicolas Marsan, avec sa formation de comédien en conservatoire et son expérience de journaliste reporter raconte ses nombreuses rencontres, ses expériences en zone de conflits, par les mots et le jeu.*

**Arnaud Sauvage** antzerki eta zirku festibal ezagutuen zuzendari teknikoa da, eta bere hitzen, eszenografiaren, argi-sorkuntzen eta dekoratuen bidez La Fabrique Affamée konpainiaren istorioak kontatzen ditu. Sorkuntza artistikoa laguntzen du gela-antolaketari buruz aholkuak emanez eta egingarritasun ikerketak eginez.

*Arnaud Sauvage, directeur technique de festivals de théâtre et de cirque reconnus, raconte les histoires de la Fabrique Affamée grâce à ses mots, ses scénographies, ses créations lumières et constructions de décors. Il offre également son soutien à la création artistique par des conseils en aménagement de salles et des études de faisabilité.*

**Arnaud Marsan** filmaketan eta zinema ekoizpenean ari izana da eta bera gaitasunak zabaltzen ditu ikusgarri ekoizpenean, idazketan eta taula zuzendaritzan testuen eta antzerkilarien jokoaren ganean duen behako sentikor eta kritikoari esker.

*Arnaud Marsan, fort de son expérience en tournage et production cinématographique, déploie son expertise en production de spectacle, écriture et mise en scène grâce à un œil sensible et critique sur les textes et le travail des comédiens.*

Azkenik, konpainiako kideen artean familia eta adiskide lotura biziki azkarrak badira eta horrek La Fabrique Affamée taldearen zementu sendoa eta aldaezina osatzen du.

*Enfin, les liens très forts familiaux et amicaux entre les membres de la compagnie constituent le ciment solide et immuable de la Fabrique Affamée.*



## 5 – ANTOLAMENDUA / DISTRIBUTION

Idazketa / Écriture :	La Fabrique Affamée
Taula zuzendaritza / Mise en scène :	La Fabrique Affamée
Jokoa / Jeu :	Valérie Marsan / Nicolas Marsan
Eszenografia / Scénographie :	Arnaud Sauvage / Valérie Marsan
Soinu-diseina / Conception sonore :	Valérie Marsan
Itzulpena / Traduction :	Joana Pochelu
Fotografia / Photo :	Carine Puyo

Bi bertsio:

- 3 urtetarik aitzina / iraupena: 45 minutu (frantsesez eta euskaraz)
- 10 hilabetetarik aitzina 3 urte arte / iraupena: 30 minutu (frantsesez eta euskaraz)

Ikusgarri hori gela batean eman daiteke edo konpainiaren karpa pean.

*Deux versions :*

- à partir de 3 ans / durée : 45 minutes (français et euskara)
- de 10 mois à 3 ans / durée : 30 minutes (français et euskara)

*Ce spectacle peut être joué aussi bien en salle que sous le chapiteau de la compagnie.*

## 6 – DATAK / DATES

2017ko ekainean: <i>juin 2017 :</i>	karpa pean – Heletan – 3 emanaldi <i>sous chapiteau - Hélette (64) – 3 représentations</i>
2017ko azaroaren 25ean: <i>25 novembre 2017 :</i>	Pierre Espil mediatekan – Hazparnen – 1 emanaldi <i>Médiathèque Pierre Espil – Hasparren (64) – 1 représentation</i>
2017ko abenduaren 10ean: <i>10 décembre 2017 :</i>	Antzerki Festibalean – Lekuinen – 1 emanaldi <i>Antzerki Festibala – Bonloc (64) – 1 représentation</i>
2017ko abenduaren 11n: <i>11 décembre 2017 :</i>	Inessa de Gaxen gelan – Bastidan – 2 emanaldi <i>Inessa de Gaxen – La Bastide Clairence – 2 représentations</i>
2018ko urtarrilaren 27an: <i>27 Janvier 2018 :</i>	Bardozen – 1 emanaldi <i>Bardos (64) – 1 représentation</i>
2018ko urtarrilaren 27an: <i>27 Janvier 2018 :</i>	Hazparnen – 2 emanaldi <i>Hasparren (64) – 2 représentations</i>
2018ko otsailaren 10ean: <i>10 février 2018 :</i>	Biarritzeko mediatekan – 1 emanaldi <i>Médiathèque Biarritz – Biarritz (64) – 1 représentation</i>
2018ko otsailaren 17an: <i>17 février 2018 :</i>	Nayko mediatekan – 1 emanaldi <i>Médiathèque Nay – Nay (64) – 1 représentation</i>
2018ko maiatzean: <i>Mai 2018 :</i>	Jean Verdun eskolan - Hazparnen – 1 emanaldi <i>Ecole Jean Verdun – Hasparren (64) – 1 représentation</i>

*Ajnab soinu-biltzailea* ikusgarriak Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluaren, Euskal Hirigune Elkargoaren eta Hazparneko Herriko Etxearen sostengua badu. *Ajnab, le Moissonneur de Sons est soutenu par le Conseil Départemental des Pyrénées Atlantiques, la Communauté d'Agglomération Pays Basque et la commune d'Hasparren.*

### **LA FABRIQUE AFFAMEE**

Arberakoa bidea, 16 / 16 route de l'Arberoue  
64240 – HAZPARNE / HASPARREN  
09 73 64 04 40

[www.lafabriqueaffamee.org](http://www.lafabriqueaffamee.org)  
[www.facebook.com/lafabriqueaffamee](https://www.facebook.com/lafabriqueaffamee)  
[lafabriqueaffamee@hotmail.fr](mailto:lafabriqueaffamee@hotmail.fr)

Nicolas MARSAN: 06 82 91 08 20  
Arnaud MARSAN : 06 72 28 80 04